



AL ANDALUS (laburpena)

Gutxienez 6,5 atera behar duzu gainditzeko ariketa hau

Abd ar Rahman I.a	Averroes	Filosofo	Kalifaldiko
Al Andalus	Azaharako	Generalifea	Mozarabiarrak
Almanzor	Emakumeek	Giralda	Muladiak
almohadea	Emirerri independentea	Juduek	Navas de Tolosako Guduan
almohadeek	Errege-erregina Katolikoek	Kalifa-herria	Taifen
Almorabideak	Esklaboak	Kalifa-herria	Zaragozako Aljaferia

HUTSUNEAK BETETZEKO ERABILIKO BEHARKO DUZU GOIKO TAULAN DAUDEN KONTZEPTUAK

Al Andalusen konkista eta bilakaera

711. urtean, bisigodoen erresuman gerra zibila zegoen: Errodrigo eta Agila borrokan ari ziren, tronua nork eskuratuko. Agilak laguntza eskatu zien Afrikako iparraldeko musulmanei eta, Guadaletoko Guduan, Errodrigo garaitu zuten. Gero, Sevilla, Kordoba eta Toledo konkistatu zituzten. Erresistentzia gutxi aurkitu zuten: lau bat urteren buruan, ia Penintsula osoa okupatu zuten.

Musulmanek (1)..... izena jarri zieten mendean hartutako lurraldeei eta Kordoban ezarri zuten hiriburua. Hasierako urteetan, Damaskoko Kalifa-herriaren mendeko emirerri bat izan zen.

Ondoren, Al Andalusen bilakaerak zenbait etapa izan zituen:

- (2).....

Abd ar Rahman gazteak abbastarren sarraskitik ihes egitea eta Al Andalusera iristea lortu zuen. Han, Kordobako emir independente izendatu zuen bere burua, (3)..... izenarekin. Hasierako garaia iskanbilatsua izan zen, hainbat barne-matxinadari aurre egin behar izan baitzieten, bai eta frankoen eta iparraldean babestu ziren kristauen erasoaldi militarrei ere.

- (4).....



(5)..... tronua oinordetzan hartu zuen eta, 929. urtean, bere burua kalifa izendatu zuen. Hajib edo lehen ministro batek eta bisirrek laguntzen zioten kalifari. Valiek, berriz, probintziak eta mugetako markak gobernatzen zituzten. 976. urtean, gobernuak (6)..... izeneko jeneral bikain baten esku geratu zen. Almanzorrek hainbat razzia edo arpilatze-kanpaina egin zituen iparraldeko kristau-erresumen aurka.

Kordobako kalifaldia Al Andalusen historiako garairik bikainena izan zen, eta Kordobako meskita da garaiko arte hispanomusulmanaren adierazgarri nagusia.

- **(7)..... erresumak**

1002. urtean Almanzor hil zenean, barne-borroka ugari piztu ziren Al Andalusen, 1031n Kordobako azken kalifa kargutik kendu zuten arte. Kalifa-herria etengabe elkarren aurka borrokatzen ziren erresuma edo taifatan zatitu zen orduan, eta agerian geratu ziren Al Andalusko gizartearen zatiketa etniko eta politiko sakonak. Krisi politiko handiko garai bat hasi zen horrela, baina baita kultura-aberastasun handikoa ere. 1085ean, kristauak Toledo konkistatu zuten eta musulmanek almo-rabideei laguntza eskatu zieten, hau da, Afrikako iparraldeko gerrari berberei.

- **Afrikako iparraldeko inperioak**

(8)..... kristau erresumei aurrera egitea eragozteko iritsi ziren Iberiar penintsulara. 1089an zenbait taifa okupatu zituzten, baina kristauen aurrerakadak eta almorabideen neurri batzuek sortutako haserreak matxinadak eragin zituzten.

XII. mendean, (9)..... ordezkatu zituzten almorabideak.

(10)..... (1212) kristauak almohadeak garaitu zituzten, ordea. Hartara, almohadeen inperioa desegin egin zen, eta kristauak Al Andalus ia osoa konkistatu zuten.



- **Granadako Nasri Erresuma**

Taifen erresumak desagertzean, Granadako Erresuma Iberiar penintsulako azken lurralde musulmana bihurtu zen. Oso botere ahula zuen, eta bi mendez baino gehiagoz Gaztelaren basailu izan zen. XIV. mendean goren unea izan bazuten ere, barne-borroka ugari gertatu ziren eta, horrek are gehiago ahulduta, (11).....
1492an konkistatu zuten.

Al Andalusko gizartea eta ekonomia

Al Andalusko gizartea heterogeneoa zen. Talde boteretsuena konkistatzaileek eta haien ondorengoek osatzen zuten. Gainerako biztanleak honela sailkatzen ziren:

- (12)..... islamera bihurtutako kristau ohiak ziren.
- (13)..... beren elijioari eutsi zioten kristauak.
- (14)..... ekonomia-jarduera biziko gutxiengoa osatzen zuten.
- (15)..... aitaren edo senarraren agintea bete behar zuten.
- (16)..... gizarte-mailarik baxuenean zeuden.

Al Andalusko biztanle gehienak nekazaritzan aritzen ziren. Ureztatzeko teknikak garatu, eta labore berriak sartu zituzten. Eskulangileek kalitate handiko produktuak ekoizten zituzten hirietan. Al Andalus merkataritza biziko gune bat ere izan zen; eskulangintzako produktuak esportatu, eta urrea eta esklaboak inportatzen zituen. Bi moneta erabiltzen ziren: urrezko dinarra eta zilarrezko dirhama.

Al Andalusko kultura eta artea

Arkitektura

Ezaugarri orokorrak:

- Eraikinik adierazgarrienak: meskitak, bainuetxe publikoak, gazteluak eta jauregiak.
- Material pobreak (adreibidea, adibidez).



- Dekorazio oparoa: landare-motiboak, motibo geometrikoak eta idazkunak (Koraneako testuak, goraipamenak eta poemak) baliatzen zituzten, islamak pertsonak eta animaliak irudikatzea debekatzen baitzuen.
- Zutabeak eta harroinak, eta askotariko arkuak: ferra-arkua, ferra-arku zorrotza, arku polilobulatua...
- Argi-itzalen jokoak, saretak eta beirateak baliatuz.
- Ura atsegin zuten: iturriak, uraskak eta urmaelak jartzen zituzten.
- Zurezko sabai lauak eta kupulak egiten zituzten eraikinak estaltzeko.

Arkitektura hispanomusulmanean zenbait etapa bereiz daitezke:

- **(17)..... arkitektura:** Kordobako meskita eta Medina **(18).....** jauregia.
- **Taifen garaiko arkitektura:** gotorlekuak edo alkazabak (Malagakoa, adibidez) eta jauregiak **((19).....)** eraiki zituzten.
- **Arkitektura (20).....** : dekorazio soilagoa landu zuten, sebka izeneko erronbo-sareekin. Sevillako **(21).....** eta Torre del Oro garai horretakoak dira.
- **Nasri arkitektura:** dekorazio oparoa, igeltsuz eta zeramika beiratzatuz estalitako hormekin. Granadako Alhambra eta **(22).....** dira erakusgarri.

Kulturaren loraldia

Oparotasun ekonomikoaren eta nolabaiteko tolerantzia intelektualaren ondorioz, Al Andalusen kultura bikaina garatu zen; batez ere, kalifaldian eta lehenengo taifen garaian. X. mendean izan zen goren unea, Al Hakam II.a kalifari esker, biblioteca izugarri handia bildu baitzuen.

Poesiak garapen handia izan zuen, eta pentsalari musulman zein judu garrantzitsuak egon ziren, adibidez, Avizena, Avenpaze, **(23).....** eta Maimonides. **(24).....** klasiko handien lanei buruzko iruzkinak egin zituzten.